



1. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. 15. 16. 17. 18. 19. 20. 21. 22. 23. 24. 25. 26. 27. 28. 29. 30. 31. 32. 33. 34. 35. 36. 37. 38. 39. 40. 41. 42. 43. 44. 45. 46. 47. 48. 49. 50. 51. 52. 53. 54. 55. 56. 57. 58. 59. 60. 61. 62. 63. 64. 65. 66. 67. 68. 69. 70. 71. 72. 73. 74. 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81. 82. 83. 84. 85. 86. 87. 88. 89. 90. 91. 92. 93. 94. 95. 96. 97. 98. 99. 100.




---

# Txomin Peillen Karrikaburu



**MANUEL LEKUONA Saria**  
**Premio MANUEL LEKUONA**



**2009**



**EUSKO**  
**IKASKUNTZA**

---

# **Txomin Peillen Karrikaburu**

# Egilea: Txomin Peillen Karrikaburu



Remigio Mendibururen brontzezko eskultura  
Sculpture en bronze de Remigio Mendiburu

---

PEILLEN KARRIKABURU, Txomin

Txomin Peillen Karrikaburu / Txomin Peillen Karrikaburu. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2010. – 103 or. : ir. ; 21 cm. – (Manuel Lekuona Saria = Prix Manuel Lekuona; 27). – Manuel Lekuona Saria 2009.

ISBN: 978-84-8419-200-8

1. Txomin Peillen Karrikaburu – biografia 2. Bibliografia – Txomin Peillen Karrikaburu I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. Tit.

---

Azaleko argazkia / Photo couverture: Camara Baiona

---

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Ikaskuntza, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

---

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIÉTÉ D'ETUDES BASQUES

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

ISBN: 978-84-8419-200-8


LG: SS-634-2010

Fotokonposaketa: Ikur, S.A. - Muros de San Pedro, 4. 48007 Bilbo

Inprimaketa: Antza, S.A.L. - Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

---

|                              |           |
|------------------------------|-----------|
| <b>Datu biografikoak</b>     | <b>5</b>  |
| <b>Données biographiques</b> | <b>31</b> |
| <b>Une gogoangarriak</b>     | <b>55</b> |
| <b>Moments mémorables</b>    | <b>55</b> |
| <b>Bibliografia</b>          | <b>69</b> |




# Bizitzaren gora beherak

**Z**ikoinak Parisen utzi zuen, Montmartreko muino gainean Txomin Peillen, Joanes Peillen, Ligi Dordorragakoaren eta Maddalen Carricaburu, Bentaberrikoaren bigarren semea, 1932. urteko azaroaren 17an jaio zen. Bai, izan ere, Frantziako Babel dorre horretan sortu zen eta hiri horretan bizitzako berrogei urte joan zitzaizkion eta beste hamar eskuin eta ezker azken berrogei urterekin Euskal Herrira lan egitera etorri arte.

Peillen Karrikaburu gurasoen bizitza ez zen, beti, batere goxoa izan. Aitak, Joanes Peillenek, eskola hamaika urteekin utzirik, geroago soldadutza Turkian egin zuen. Azken herri hau 1914.eko lehen “Gerla Handi” delakoan alemanen alde jarri zen eta armeniarren sarraskitzen hasi. Aitak kontatzen zuenez armeniar herrixketan haur emakume eta zaharrak hilik edireten zituzten eta salbatu zirenak Mersinako portura eramaten ziren itsasontziratzeko eta Europara bidaltzen.

Jadanik, geroago Yaltan, Europarekin egingo zuten bezala, ingelesek eta frantsesek Turkiaren inperio zatien kudeaketa edo protektoratua hartu behar zuten: halaxe frantsesek Libano eta Siria okupatu eta geroago herritarrak azaldu zirenean itsuski zaflatuko; baina aitaren garaian soldaduek ez zekiten non zeuden bi aliatuek zatitu eta erreserbatu lurraldeak: frantsesek Eufratesetik honaindian atzera egin behar izan zuten eta Frantziako soldaduek kristau baita musulmanek Jerusalem armarik gabe bisitatu nahi izan zutenean, ingelesek ezezkoa eman, orduan Palestina geroztik arazoak sortuko zituenean, beren protektoratu ospetsua jarriko baitzuten.



Aita Turkiatik sar eta Zalgize Iragoeneko izebaren etxean morroin jarri zen, baina denborarik galdu gabe, gau eskolan ibiliz, bere garaian izan ez zituen lehen mailako ikasketak egin; halaber Karlomano pastorala eman zenean 1928. urtean, jakina, aita “türk” errege jarri zuten.

Laster urrendu zen aitaren Zuberoako egonaldia, nahiz gure aititak hitzeman etxeko nausi gaztea izanen zela, arreba lehen ezkondu eta zaharrago baitzen, Joanes Peillen beste lanik ezin aurkituz, maletattoa egin eta, urre pieza bakar bat sakelan, ekonomia arazoengatik, Parisera erbesteratu zen. Hasieran zernahi lan eginik, azkenean udal hirizain sartu zen eta hor lehen bi graduak gainditu.

Amak ordea, bederatzi urteekin eskolatik kendurik, ez zuen lehen mailako maila bireskuratu (euskaraz baizik ez zidan idatzi); gazteago herritik joan zen hamasei urteekin Bordeleko lehengusina baten etxean lan egiten ikasirik, hemezortzi urteekin (1911. urtean) Parisen zegoen; eskuin eta ezker etxeetan sukaldari ibili ondoren, Champs Elysées delako Claridge hotelean arropa arduradun egin zen eta hiri nagusian zegoeneino han egon. Gerrateko zuberotar egonaldian zangoan hautsi zuen eta orduko Olorueko Lafitte “barbero” txarrak gaizki jarri; geroztik ezin lan jarraikirik eginaz bizitu da Maddalen Karrikaburu ama. Azkenean, Txomin jaio zen etxera Montmartre itzuli zen bizitzera eta hiltzera. Hau zen orduko zuberotar askoren bizitza. Miranderen gurasoena oraindik zailagoa izan zen. Bakan batzuk polizian sartu ziren, asko morrontzan ibili neskame, hoteletako enplegatu, elizetako mutil edo sakristau eta geroago ostalari.

Bi urte t’erdi 1939-1941. urteen bitartean Zuberoan egon ziren amarekin bi semeak eta euskara ulertzen zuen baina ez mintzatzen Txominek, denak euskaldun ziren herrian; gero, gerlaren azkeneraino Parisen egon behar izan zuten.

Parisen, haien berrogei bat apartamentuko etxean, karriketan alemanen aurkako erresistentzia abiatu zenean Paris askatu nahiz, aita desagertu zitzaien; bere lagunekin borrokara joan zen: hamar egunez ez zuten ikusi eta Mauser aleman arma eskuan behin agertu zitzaien eta Erresistentziara itzuli.

Bitartean, etxean zeuden beste «gizon» guziak gorde ziren eta deiadarrak jotzen zuenean lurpeko sotoetan ikusten zituzten, horregatik anai ezaxolak ondar zakuak garraiatzen erabili zituzten Boulevard Saint Germain delakoan barrikada altxa zedin.


Bitarte horretan eta aleman generalak bere burua errenditu arren Hitlerrek eskatu hiriaren erretzea ez zenez bete, mendekuz bi aleman hegazkin itzuli ziren eta etxetik hurbil zegoen Ardo Merkatu nagusia «La Halle aux Vins» bonbardatu: honela paristarrek ez zuten ardo gehiegirik izan askatzea handiki ospatzeko.

Aita itzuli baino lehen frantses tanke batailoia Peillentarren etxetik larrehun metrotara hurbiltzen ari zela joan ziren Place Maubert-eraino; Hor zeuden Division Leclerceko «frantsesak» ohoreagatik lehen sartu zirenak; bati galdetu zioten nongoa zen, hark Mauleko. Euskalduna? Ez, espainola; ondoren, jakin zen ohoreagatik amerikarren aurretik igaro ziren soldaduen erdiak espainolak zirela eta agian ez ziren euskaldun zenbait faltako.

Garai haietan, amari penarik ez emateko sinesten ez zuen jainko batenganako atxikimendu laburra izan zuen, bizpalau urteez, katixima zerbait ikasiz, geroztik morala erdi gordeaz eta dogmak ez beharrezko iritziz, hamalau urteekin lortu nuen ehorzketa eta eztei aldietan baizik mezetara joatea.

Proselitismoa higuin duelako ez zen inoiz ateo militantea izan, Elizaren kanpotik egon eta egoten da eta aski. Gazte garaiko aldizkarien irakurketek harengan eragina izan zuten. Aita alderdi komunistean zegoeno *l'Humanité*ko kultura orrialdeak gogoko zituen, baina politika gaietan nahiago zuen klandestinoki hasi, Albert Camus-ek garai batean zuzendu *Combat* egunkari askeena irakurri. *Le Monde* egunkariak Madrilen zeukan berriemaileak hala nola Creac'h delakoak ez zelarik gaiztoegi Francorekin, Euskal Herrian ez zuen «espainol mota» baten oposizioa baizik ikusten. *Combat* delakoan Espainiako eta Euskal Herriko abertzaletasuna eta arazoak artikulatu zerrenda batekin ongi argitu zituzten. Zoritxarrez, *Combat* desagertu zen. Euskaraz astekari bakarra *Herria* zen, baina aita, hori ez baitzitzaion kazetaritza iduri, laster, garai hartako, Boletín diocesano horren





elizakeriez asea (adorazioneak, bataioak, komuniankak) harpidetza utzi zuen.

Euskaldun munduaren deskubritzeaz kanpo ez zaio ezer garrantzitsurik gertatu, Marie-Thérèse Olivierekin 1964. urtean ezkontzea baizik; irakasle zegoela 1968. urteko maiatzean klaserik ez ematea erabaki zuen, baina ikasleekin eztabaidatzen egon; orduan, zoritxarrez hogeita zazpi urte zituela hil zen, erdi zuberotar zen Jacques Delors frantses ministroaren seme argia ezagutu zuen eta haren ama zuberotar euskalduna. Lankide batek hitzaldi bat eman zien eta batxileratoko azken urtekoentzat ere Maoismoa gauza miresgarria bezala irakatsi.

Bere aldetik, Peillenek hirugarren munduaren goseaz, gosearen patologiaz eta gose horren iturriak azaldu zizkien. Bestalde Algeriako gorabeheretan gudukarako gogoa galdu baitzuen, ez zen kale borrokan ibili, bestela ere, abertzale egin zenez ez zuen ulertu zer ekarriko zuen frantsesen arteko borroka horrek bere borrokari.

Algerian, Infirmier Major bezala eta Gurutze Gorriaren izenean, mediku batekin edo gabe Dohanikako Sendakuntza Laguntza indigena zibilei ematen ibili zen. Hainbeste istilu sortu da Frantzian Afghanistanen, bederatzi urteez, ofizioko 25 frantses soldadu hil direlako eta Txominen batailoi txikian, hemezortzi hilabetez 29 hil izan zituzten, baina ez ziren prentsan aipatzen ere, ez ziren ofiziokoak baina beren gaztetasunarekin, maiz, bortxaz eramanak, eta musutrukean gudukatzen zirenak. Gerrate horretan, zortzi urteez denetara, 25.000 frantses gazte hil ziren. Algerian ikasi zuena izan zen, medikuntzaz zerbait, arabear dialektoaz beste zerbait eta bakezaletasuna, geroago Gandhizale eta indarkeriaren etsai egingen dutena.


Azkenean, 1982.urtean lanera eta bizitzera Euskal Herrira itzuli zen eta Santa Grazin zeukan etxetik Zuberoan ibiliz egin zituen bere etnografia lan handienak, batik bat, Santa Graziko eta Ligiko berriemailekin.

Ikasketek eta irakasleek gisa batez edo bestez gure geroa baldintzatzen dute. Baccalauréat delakotik landa aski zalantza izanik agronomia ikastea erabaki zuen, baina jakintza ez ziren gaietan ere hutsune handiak zituen eta bide okerreanean bi urte galdu zituen, gero lau Algeriako eta soldadokako urteetan, azkenean Parisen biologia lizenziatura egin zuen, geologia apur batekin eta horrela gai horietan 22 urte joan zitzaizkion kolegio eta lizeoko irakasle.

Parisen zegoeneino etnologia ikasketa eta praktikak mintegi batean egin zituen. Alain Eppelboin jaunaren, Laboratoire des Langues et des civilisations orales CNRS Centre National de la Recherche Scientifique delakoak antolatutakoan etnobiologian eta etnomedikuntzan, munduan zehar, biologoek eta sendagileek bizituak eta aztertuak kontatzen zituztenekin. Talde horretan bi urteez 1961. urtean eta 1962. urtean kidetu zen.

Lehenik, etnologian ikasi zuena eta zutena izan zen Afrikan, eta Hego Amerikan hobeki irabazteko bertako sendagileak hain gutxi zirelarik batez ere Afrikan, mendebalde formakuntzako zutenak lekuko medikuak nahiago zirela Frantzia eta Ipar Amerikan finkatu hobeki irabazteko.

Bigarrenik, Médecins du Monde eta OMS eko langile horiek ziotela herri-sendagile onekin ibili behar zela, baina ez gaitz baten “norbaiten” edo izterbegi baten eragina bilatzen zuten sasi sorginekin, ezen gero gaitza leporatzen ziotelako, errugabe bat erahiltzeko arriskuan jarritz.



Hirugarrenik, eta hori medikuntza horien balioa ukatzen zituen andre batekin eduki eztabaiden ondotik konturatu ziren bertako hizkuntza baten ulertzeak zer onura zekarkeen, ezen andre hari galdetu zitzaionean nondik atera zituen bere oharrak, bitarteko itzultzaile baten bidez zebilela aitortu. Jarraitu zuen Peillenek galdetuz bere interpreteak elebidun zirenez, biologiaz edo medikuntzaz zerbait zekitenez? Benetako elebidunak zirenez? Andreak galderak gaitzetsi zituen. Laugarrenik, ikasi zuten tradizioko herri sendagile onek bazekitela gorputz baten ahulezietan geroko gaitz baten erein lekuak bazirela, bestalde erabiltzen zituzten sendabelarrek eta mineralek eragina zeukatela.

Bosgarrenik Txominen ekarpen xumea izan zen, nola magrebtar munduan taleb herri sendalariak, batik bat ur irakinarekin egin zauriak, zaintzen zekiten eta irakasten, esnea, bilgorra, eta kafe porrokin edo errepesak erabiliz minak lotzen; azken kasu horretan Dohanikako Sendakuntza Laguntza (Assistance Médicale Gratuite) delakoan zeukan mediku nagusiak esan zion, berrikitan, kafe hondar horietan antibiotiko gisako botiga zegoela; orobat, hezur hautsiekin talebek zuzentzeak eta geldiarazteak erdiesten zituzten zotzak edo tablilla egokiak eginaz; medikuntzako haiek ez zieten behin ere esan mairuei talebengana ez joatea; zoritxarrez gerrako aroa eta baldintzan zirelako ez zuten gai hori sakondu.

Jakina, Algeriako gerla delako horretan ikusi eritasunak, gaitzak kontatu zizkien baita zibilen bizi eta bizitza egoerak, betiko gerratetakoak: goseak, toxikosiak, tuberkulosia, tifoidea, baita bertako eritasun bereziak, hazteriak, ezkabiak, begietako trakomak itsutzen zituenak, tinak burusoiltzen, tetanos eta tifusak hiltzen. Medikuarekin Algerian egin galderetan Txomin eta medikua gazteetan askok tifoidea eduki zutela ohartu zen, baina ez zela poliomieltis kasurik gertatzen, urritasunagatik nekez garbitzen ziren jende horien artean, baina bai antibiotikoz gainditu bertako frantsesen artean: badira gaitz batzuk beste batengandik zaindu lezaketenak.

Ordu onean, oroitu zitzaion Txomin Peilleni hizkuntzetan zeukan zaletasunaz, gaztelaniaz eta ingelesez ongi moldatzen



zela: Iberiar eta Iberoamerikar gaztelaniazko lizentziatura egin zuen Parisen eta hezkuntza jakintzen lizentziatura ere.

Horiekin guztiekin, alde batetik literaturan eta hizkuntza irakaskuntzan sartu zen. Parisen 12 urteez Lavoisier lizeoan euskara irakaslea izan, gero Euskal Ikasketen doktoratua Haritschelharrekin Bordelen pasaturik, Paueko Unibertsitatean 15 urteez euskal irakasle eta orain emeritua da.

Bitartean euskaraz eta frantsesez eman ditu filologiazko eta linguistikazko lanak, gehienak zubererari buruz. Hasierako ikasketek beti eraman dute biologiari eta etnologiari buruzko ikerketen egitera, Biologiaren didaktikaz, Herri sendakuntzaz, Ehizaz, Zepokaz, Janariez eta beste.




# Euskalduna

**E**z da Parisen sortu euskaldun bakarra; haren belaunaldian euskaraz zerbait edo aski zekitenak baziren. Euskaldun izatea, lehenik gurasoei zor zieten Txominek dionaz:

(...) egun guziz gurasoak etxera erretiratzen zirenean beren artean beti euskaraz ari entzuten genituen, eta ama ere gurekin aski usu hala ari zen.

Halere, hamahiru urteetan, hamahiru urteekin, zubereraz zerbait ulertu arren, anaiaren alderantziz, Txomin Peillenek ez zuen euskaraz hitz egiten. Osaba Allande Alemanian preso egon ondoren Parisera itzuli zenean, amari galdetu zion zergatik seme hura ez zen euskaraz mintzatzen. Orduan, hasi zen Pariseko bi osabekin euskararen arrarotasunaz ohartzen. Osaba horiek ere eta gero lehengusuek euskaldun euskaradun izaten lagundu zuten. Euskal Herriari eta gure mintzairari buruz idatzi zirenak irakurtzen hasi zenean jakobino eta anarkista zen Onésime Reclus geografoaren *En France* liburua aurkitu zuen eta oraino liburutegian badu; idatzi zuen ezkertiar biarnes horrek euskara zailegi zela idazteko, ez zuela literaturarik, (hortan erdi arrazoi zeukan) euskara hogeigarren mendean hilgo zela; gero zion bi aldiz hiltzea dela literatura onik eman gabe eta gure hizkuntza gramatikalari batzuentzat tesi egiteko gaia izanen zela:

Le langage basque tombera dans le néant car c'est être profondément oublié que de servir d'argument à quelque grammairien de thèse à quelque savant et c'est périr deux fois que de périr sans chefs-d'œuvre (Onésime Reclus, *En France*, p 464. Paris, 1887).



Jarraitzen zuen Réclus horrek idatziz euskaldunek hobe zuketela Hego Amerikara bizitzera joatea. Ez zuen erraten 1887.an euskaldunen lekuan nor jarriko zen. Zati horretan anaiak kexuan idatzi hitzak badira eta orrialdea urratzen abiatu zelako marka. Txominek dionaz:

Orduko ezker laiko jakobinoa euskal munduari interesatzen zenean gure herriko sakristau kulturaz asperturik, denak klerikal eta erregezale zaku berean sartzen gintuzten.

Bestalde bazuen zazpi urte 1880. urtean, hargin beltz eta laiko amorratuen pozez, eskolan euskararen erabiltzea debekatu zela. Urte oro eta maisuak, errejentak hezten zituzten Paueko Ecole Normalean buruan sartzen zieten “departamentua desohoratzen zuten bi mintzaira atzeratuak, biarnesa eta euskararen galaraztea da zuen eginbidea”, geroago Etchart izeneko euskaldun zuzendari batek errepikatuko ez zuena. Errepublikaren berdinkeria, uniformizatzea hor gogorki abiatu zen. Iraultzaz geroztik errepublikazaleak euskaldunei buruz ez ziren iritziz aldatu.

Gure herriko jaunttoek ere ez zuten euskal eliterik handirik sortu. Peillen euskara ikasten zebilela jendeek zioten euskara mintzatzen zutela etxeokoe besterik ez zekitelako, baina nola nahi ez zutela ulertzen zergatik, atea izanik, “apez mintzaje” hori ikasten zebilen, Txomin paristar hori. Bazterretan errepikatzen zuten euskaldun izatea ikasketetan oztopoa zela eta nola nahi Mauletik behera ez zuen jakite horrek deusetarako balio; hauek guziak “jende ederren” eta errejenten predikuak ziren.

Gauza bi nahasten ziren euskararen jakitea eta eskolatzea. Euskarari jende xehea ere mugak jartzen ari zelarik, halere zioten hamahiru urtetaraino eskolan egotea aski zela. Aitortu behar da herritik kanpo joan behar zela bigarren mailako ikasketen egitera eta nonbait Maulen edo Pauen egoitza eta janaria ordaindu. Bestalde hemeretzi-hogeigarren menderen mugan eskola laburragoa zen, haurrak doidoia irakurtzen eta letra idazten zekitela, morrontzan eta nekazari lanetan jartzen ziren. Ana izebaren erranetan, orduan ere, Ameriketara emigratzea zelako aterabide ezagunena ez zuela balio frantsesaren sakontzea, aski

bazekitela familiari diasporatik euskaraz eskutitzak egiteko gai zirenean. Halaxe, ama bederatzi urterekin eta aita hamaika urteetan eskolatik atera zituzten.


Parisen askaziez kanpo Peillen anaiek ez zuten euskaldunik ezagutzen eta 1946. urtean Bentaberriko Ana izebari aitortu zionean euskara mintzatu eta hobetu nahi zuela, bi liburu eman zizkion, euskarazko lehen biak: Salaberri mauletarraren kantutegi elebiduna eta Artxuren bi mintzairerako gramatika. Horrela hamasei urteekin euskaraz mintzatzen hasi zen.

Azkenean bretoiak baitzituen lagun gehienak eta haien mintzaira ikasten zebilela, Pariseko euskaldunak ezagutarazi zizkion. *Ker Vreizh* bretoi kultur etxean Gernika taldeko kantariak entzun zituen eta horrela jakin euskaldun abertzaleak bazirela, eta Eusko- Jaurilaritza izen bitxiko gobernu erbesteratuak ordezkari eta egoitza ederra bazuela Pariseko Avenue Marceau 11 delakoan.

Ordezkaritzara joan zen. Baliatu zitzaion, behin, goizegi hurbiltzea ezen behean ez baitzuen inor ediren, lehen solairura jo zuen eta han ate bat ireki zion, euskaldun eta idazle izaten berotukoena zuen, Andima Ibinagabeitia elantxobetarrak. Frantsesez zuzendu zitzaion eta hark euskaraz euskalduna zenez galdetu. Peillenek baietz eta jatorriz zuberotarra, abertzaletasunaz interesatua. Bizkaitar jaunak erantzun euskaldun izateko, oroz lehen, euskara mintzatu behar zela eta ikasi, gero ikusiko zuela balio zuenez abertzale izatea.

Orduan, 1949. urtean Andimak, Dominique delako bat Txomin bataiatu zuen, gero luma izen gisa erabiliko duena. Andimak eta biek tormentu desberdinak zituzten, gero ohartuko zenez, hark Espainolez baizik hitz egiten zuten abertzaleak izateaz eta Txomin askazietan gure mintzaira mintzatzen ez zuen bakarretarik izateaz. Lehen euskal irakaspenak Andimak eman zizkion Lopez Mendizabalen metodoa eman orduan gehienik idazten zen gipuzkera osotu zelakoan mintza zedin eta idatz zezan. Ordudanik bazekien ez zuela euskara baztertuko baina ez zekien beste ikasketen kaltetan izanen zela, Gernikan kantatzen, euskal klasetan, idazten denbora galtzen omen zuelako; euskararen





ikasteari lehentasuna emanaz, aitak zion bezala beti frantsesez hitz egiten ziolarik “tu perds ton temps avec ton basque” baina hori zen euskaldun berritzen eta militante zirenen zoria.

Euskara mintzatuaz amets egin zuen eta etsitu, zeren herrira itzul eta ohartu baitzen baseritar familian euskaraz ari baziren Eskualtzaleen Biltzarrakoak eta Iparraldeko abertzale, euskaltzain eta euskaltzale euskaldun zahar gehienak ere beren artean, maiz, frantsesez mintzatzen zirela, eta euskara, latin berria bezala, hegoaldekoekin hitz egiteko erabiltzen. Diglosia dela-eta argi zaio, orain, hizkuntza batean abiatu harremanak nekez beste mintzaira batera igarotzen direla: bai ez zuen inoiz lortu aitarekin euskaraz hitz egitea, baina Haritschelhar eta biak frantsesez nekez mintzatzen dira. Orobat, gertatzen zaio, frantses nazionalista, antiabertzale eta euskararen irakastearen etsaiak edo ezaxola direnekin beti euskaraz mintzatzea, harremana horrela abiatu zelako.

Nahiz Ipar, nahiz Hego jende helduak beren artean erdaraz ari badira, hurrek bide hori onartuko dute: euskara utzi behar dela haurtzarotik irteteko edo euskara beste ikasgai edo asignatura arrotz bezala bilaka daitekeelako: Ikastolako hurrek, beren artean, zer hizkuntza darabilte? Oroitzen da ere Baionako fakultatean korridoretan zain ziren gazteak euskaraz ari zirela eta Harinzelai edo antzeko izena zeukan mutil abertzalea etorri eta frantsesa inosatzen zietela. Oroitzen da ere Pragan 1968. urtean Norbert Tauer txekiar euskaltzaleak erran ziona, txekieraren adibidea emanaz:

Zuen hizkuntza salbatu nahi baduzue: euskaldunekin beti euskaraz hitz egin behar duzue.

Ipar Euskal Herrian ez gaude bide onean eta Hegoaldean ez askoz hobean. Gertaera horiekin ez da aztia edo profeta izan beharrik, finantzeta bezala epe laburrean ibili behar da eta hizkuntza dominatzaileek buruan sartu diguten buruzagitza baztertzen jakiten badugu gure hizkuntzak beharbada beste menderik ezagutuko du. Zenbat aldiz ez du entzun euskara “independentziarekin” salbatuko dela! Nola daiteke elebiduntasuna eskatzen duten abertzale paperetan euskaraz % 10 gainditzen ez dutelarik?!


Batzuetan besteek bizitua lagungarri genuke. Zer egin dute Irlandar independenteek beren gaelikoaz? Elebidun bakarra politikan, E.A. ko *Zubiak* da, Baionan egina.

Anitzetan deitoratzen du zenbateraino frantsestu den Iparraldeko euskara mintzatua eta Hegoaldean hitz egiten dena espainoldu, baina beharbada hobe da 'gaizki' mintzatzea batere mintzatzea baino. Arazoa da, mintzaira guztietan, mintzatzaile bakoitza bere alde joanaz belaunaldien eta herrien artean ezin ulertuz ibiltzen ez erortzeko, arau batzuk ere behar direla zaindu.

Euskara batuak idatzian bere bidea egin badu mintzatuan elebidun izan behar luke bakoitzak bere euskalkitxoa jakinik ere, gure artean erabilgarri den euskara batua hobetu. Badakigu baina oroitu behar zaigu, herri zokokeriak utzirik, zuberotar bat Markinan bere euskalkian has baledi inork ez lukeela ulertuko ez eta bizkaitar bat berean jardun baleza Barkoixen.

Badakigu hizkuntza guztiak biziak direla eta bizi den bakoitza osasunez edo gogoz gizabanakoa dela, bakoitzak alda lezakeela baina hizkuntza ez da berezko jarduera bat, ikasten den hautabidea, erdibidea baino. Hain zuzen, irri egingarri dira frantsesak uste baitute beren hizkuntza abstrakziorako bakarra dela.

Badakigu, berdin, Nafarroako espainolista buruak esan duela euskara ezin dela erabili gizarte moderno batean. Ez daki Peillenek Euskal Herriari buruz zein andere biarritzarrak idatzi zuen: «le basque ne s'écrit pas parce qu'il n'a pas de mots abstraits» beste gisaz erran zuen Pierre Ibarrondo euskaldunak euskaraz etzela hitzik gauza modernoan aipatzeko, eta adibidetzat ez zela hitzik gure hizkuntzan cardan errateko; Pariseko euskaldunen *Elgar* kazetan "Du Cardan à la Silhouette" artikuluarekin Txominek erantzun zion. Kardan giltzadura, Cardano italiar baten izenetik horra zela, eta frantsesak ere hitz abstraktuak falta zituela hitz konkretuak direla "esprit" jatorriz spiritus arnasa, hatsa delako, halaber "âme" anima, butza, matematikako "calcul" calculus "harri txikia"; gero badakigu gaurko frantsesa nekez ari dela hitz berri asmatzen eta adigai zaharrentzat ere ingeles hitzak hartzen.




Beraz, hau da Peilleneztat gure hizkuntzaren biziaz ohargarri zitzazkionak, gero haren gainean egiten diren predikuak eta misterio argitzeak, nahiz aspertzen duten, ez diote sekulan euskaldun izatea oztopatu, nahiz balizatekeen, omen, aunitz errateko, munduko hizkuntza guzietan gurea konparatu dutenek euskal nortasunaren ukatzeko edo dagoen baino gorago ezartzeko: euskal exotismoak badauka aunitz idatzia eta batzuetan zentsuratua izan da ameslaria ez delako.

# Literaturan idazle

**P**ariseko Henri IV lizeoan 1948. urtean aspertzen zelarik, ondoko bretoi lagunak Jakez Moalek soldadu batek bere maiteari zuzendu kantu bat frantsesera itzuli zion eta Txomin Peillenek euskaraz eman, euskaraz haren lehen “idatz lana” izan zen. Gero, euskal literaturaren orduko sasi trinkoan sartu zuena eta aurrera egitera bultzatu gorago aipatu Andima Ibinagabeitia izan zen. Andimak bataiatu Mirandetar Jon zuberotar bat ezagutarazi zion, eta gero bata besteen etxeetan hilabete oroz eta larunbatetan lauzpabost lagun bildu ziren. Bakoitzak idatzi zituen lantxoak ekartzen zituen, jadanik *Gernika*, *Egan* eta *Euzko Gogoa*, aldizkarietan artikulua eta olerkiak argitaratzeko ahala izan baitzuten. Robert anaiak ipuin bat baizik ez zuen idatzi baina bilduma batean Txomin Peillenen izenarekin agertu zen. Garai hartan, haurrentzat eta helduentzat ipuin eta kontakizun ere idatzi zuen Txominek, gehienak orduko gipuzkera osotuan. Andima Parisen zegoeneino giro onean egon zen.

Garai hartan zituen bere olerki eta prosa gehienak Jon Mirandek gipuzkera osotuan idatzi; azken lan nagusia *Haur Besoetakoa* eleberria izan zen 1959. urtean. Geroago, Mirandek olerkiak lapurtartuz eta eleberria euskara batuan biridatzi zituen. Idazteko hizkuntza arautua behar da eta hasieran, behin zubereraz idatzi badu, Txomin Peillenek, gero beregisako gipuzkera osotuan, baina Villasantek eta Krutwigek aholkatzen zuten lapurtar klasikoaren bidetik, eleberri bat eman zuen *Itzal gorria* (1963), Agirre saria izan zuena (1966) geroztik euskara batuan aldaera irakurgarriagoa eman du, Sarrionandiak irakurri lehen eleberria izan zen eta bere denboran nekez ulertu zuen, gero giltzapean zenean gustura egin.



Txomin Peillenek apurka apurka euskara batua baino lehen euskaran “h” batzuk eta lapurtar hitz zenbait erabili zituen, euskara batu batera azkenean igaro. Ez du horregatik bere jatorrizko euskalkia bazter utzi, zuberotar literaturaz liburu bat egin zuen *Zuberoako itzal argiak* izenekoa, askoz geroago epopeia antzeko olerkia Zuberoako kondairaz eta zubereraz. Azkenik 2009. urtean Euskeran haren, asto lasterra, Ehiztariez eta Ekologistez *Ihizlor eta Ekolor* egin fartsa argitaratu diote. Uste du euskalkiek beren lekua izan behar dutela kantugintzan, olerkigintzan eta antzerkian baita lehen adinetako ikastoletan ere.

Iparraldean, borondate eta irakurle ezaz, ez zen, Elizaz kanpo, argitaratzeko modurik eta halaxe 1953. urtean idatzi zuen *Gauaz ibiltzen dana* eleberriak, bi urte t’erdiko soldadokatik itzultzean 1964. urtean Txomin Agirre sariagatik 1966.an argitaratu zioten Hegoaldean. Testu luzeagoak argitaratzeko ahalbidearekin eleberri idazten eman zitzaigun, eta bederatzietarik lauek sariak irabazi zituzten. Jakina, aspaldiko kontuak dira eta liburutegietan baizik ez dira atzematen eleberri baten bigarren edizio, batuan, baizik ez du eduki, *Itzal Gorria* delakoarena beraz euskal literaturan, zahar askoren gisa, idazlea laster fosilizatzen dabil.

Haurrentzat hiru ipuin bilduma idatzi zituen adinka emanak, *Hor Dago* delakoak argitaratuak. Helduentzat sasi-erotikazko ipuinak, fantasiakoak, humorezkoak, detektibe girokoak idatzi zituen; denetara 95 argitaratu zioten, halatan ere Igerabidek jende aurrean esan zion ez zela ipuin idazlea: bai euskal literatura berak hogeitau urteak zituenean hasi balitz bezala edo beste arrazoi txarragorengatik. Detektibe eta humore girokoek bigarren mailako idazle ospea eman diote, baina horrela jarraitzen badugu hemendik berrehun urte denak lurpeko mailan egonen gara.


Lau eleberri sari eman zizkietenak ez du uste okerregi ibili zirenik. Hizkuntzaren aldetik Mirande, eta gaien aldetik lehen jorraztaileak Mitxelena zituen, orain andrea eta beste bi adiskide ditu benetako kritika zorrotzenak idazlanak frantsesera itzultzen dituenen, baina orain baditugu euskal literaturaren epaileak, maiz, beren espainol ikasketek eta estatubatuarren mirespenez markatuak, kritika ñimiñorik egin gabe lerro batean erabakitzen dutenak txarra ala ona zaren. Badira, ordea, kritika onak hala nola

Ion Olano argudioekin esaten dizunean, zertan hobeki egin zenezakeen eta zergatik ez zaion zerbait gustatu. Parisen, argitara zedin, ezagutu euskaldun ikasle batzuei, haren alde sinadurak eman zituztenei, hala nola Jokin eta Joxemartin Apalategi, Joxean Agirre ilunpetik atera zutenei eta orobat, euskaraz idazten jarraitzea, *Maiatz* aldizkariko Luzien Etxezaharreta eta *Dakiteko* Sabin Oregi eta beste zenbait, ere zor die. Literatura liburuen kopurua gora igo omen da: Joan Mari Torrealdaiak zorrozki ikertu ondoren argitaratu liburu aleena jaitsi dela erakutsi digu.

Zer iritzi daukan euskal literaturaz? Ez luke Gil Bera desbideratuak bezala idatziko ez dela, gaur, euskal literaturarik, bestela berdin erran daiteke hizkuntza askorentzat. Ez luke errango gailurra jo duenik, bakarrik dio, behin Euskadi sarian kide izan ondoren, eta aspaldiko irakurle eta jale ona denez apairuetan eta otoruntzetan bezala baditugula pintxoak, sarrerakoak, plato nagusiak, barazkiak eta ondokoak. Lan batzuek edaria eskaintzen digutela eta besteek egarria. Berak dio, eskaintzen dituen pintxoak onak baldin badira, hainbat hobe.

Euskal eleberri idazleek trena berandu hartu dutela badaki, jadanik erdal eleberriek bide luzea eginik zirelarik. Euskararentzat irrika handiagoa izanik ere, Koldo Mitxelenak ere uste zuen euskara literaturari mugatu behar zela eta eztabaida handia izan zuen Txomin Peillenekin Uztaritzen azkenik ikusi eta mintzatu zuenean: Mitxelenak ez zuen nahi gazteek euskara irakasgai guztietara egokitzen indarrak gal zezaten. Mitxelenak iker lanak, beste irakurlerik ezean, gaztelaniazko liburuetan eman arren, bere artikulu askorekin ikerketari buruz eta literaturatik kanpo Mitxelena euskal hiztegia aberasten ibili zen.

Euskal literatura aspaldiskan liburuetarik jalgi zaigu: Josean Artze, Mikel Laboa, Imanol, Lurdes Iriondo, Mikel Markez, Natxo de Felipe eta beste batzuek olerkiak musikatu baitzituzten eta irakurle ez zirenak ukitu. Artzek kaligrafia eta Zumetaren irudiekin eman zituen bere lehen liburuak, eta hormetan irudi hedatzearekin, txalaparta soinuarekin, kanpoko hotsekin, beste teknikekin beren poemak irakurtzeko bidea hartu zuen erakutsiz, apur bat baztertuak diren olerkari eta prosista onak hala nola Edorta Jimenez publiko zabalagoa ukitu du *Jon Mirande*




*kaberetearekin* eta zineak Andu Lertxundi hobeki ezagutarazi. Orain, euskal idazleak ospedun izateko literatura agentea behar du, arrotz hizkuntzetara itzulpenak eduki eta batik bat benetako espainol Sari Nazionala irabazi; halere sari eder horik gabe, hiru kaletarrek, ez beste gaurkoek, Arestik, Mirandek eta Txillardegik 1950-1960 urte tarte horretan modernismoaren ateak ireki zituzten, bai hizkuntzaren, bai gaien aldetik hirurek euskal literaturaren sasiak eta sastrakak ebaki, bide berriak irekiz.

Oraingo literatura Saizarbitoriarekin eta Atxagarekin abiarazten dute gazteek, erraz ahazten dituztelako hilak edo zahartuak. Ez omen zen *Ehun metro* (1976) baino lehen, politika agertu eleberrian eta zer da Gerra Zibilaz Martin Ugaldek idatzi Iltzalleak (1961) eta Tx. Peillenek euskaldun komunista baten etsipenak eta leialtasunak kontatzen dituen *Itzal Gorria*, 1963. urtean idatzia, 1966.urteko Txomin Agirre saria?

Besteen gisa, dio, ustekabeen, jakin gabean eta batzuetan irakurketa oroitzapen lauso batengatik jadanik kontatu direnak idaz ditzakeela. Peillenen lehen olerkia, gipuzkera osotuan, *Gernika* aldizkarian argitaratua, Txen Huo Xang txinar ospetsuaren legendaz idatzi zuen *Txinar gudari* (1950. urtean) izan zen eta handik urte zenbait eskema berdin-berdinean Gabriel Aresti adiskideak *Nire aitaren etxea* euskaldunagoa. Biak Txinarekin zorretan daude.

Era berean, Théophraste Renaudot sari ospetsua irabazi zuen Salbat Etcharten, Guadelupeko borroka armatua aipatzen duelarik, eleberriaren erdian, gizon baten *ehun metroko* ihes lasterka eder bat, idatzi zuen eta euskaraz gai berdina geroztik idatzi da. Txominek, sarritan, uste izan du, oharkabeen, denek gisa, bere ipuinetan horrelako oroitzapenak edo ereduak izan dituela, baita hala nahiz olerkietan Errenazentistak imitatuz idatzi dituenak, baina aitortu ere, gainera haiek ere hamaseigarren mendean, batzuetan, latinezko olerkia edo prosa edertua, berriz idazten zutela: kristauek dioten gisaz: “barkatu baina ez da pekatu”. Modu berean, Txominen olerki hoberena omen dena ez du asmatu, 1964. urtean gaia Baghavad Gîtako Maha Bharata delakoan hartu zuen.



Batzuek diote dena idatzia izan dela, horrek erran nahi luke aspaldian idatziaren ondotik ez dela ezer aldatu munduan? Munduaren aldatzea eta pentsaeren ugaritasuna ukatzen gabiltza, uniformetasunaren kontra direnak. Hori mendebaldeko pentsamendu bakarraren frutua da. Sarritan, ez dakigu asiatarrek gure adigai batzuek baztertzen dituztela hala nola Egia, Infernua, Paradisua eta Sartrek “L’Etre et le Néant” delakoan “izan” aditzaren inguruan eraiki zuena; beste begiz dakusatela, gure kategoriak alferrikako jokoak iruditzen zaizkiela: “hala nola maindire mihise zuri bat deskribatzea, gau ilunpean”






**G**ure aurreko belaunaldi etsituak ez zuen sarritan, euskaragan larregi sinesten, beren ikerlan gehienak frantsesez edo gaztelaniaz egiten zituzten eta askok ez artikulatu bat ere idazten euskara zekitelarik. Resurrección María Azkuek eta Juan Garmendia Larrañagak beren lanak bi hizkuntzetan ematen saiatu zirenak izan ezik.

Maiz, galdetu diote Txomini zergatik bere ikerketak euskaraz egin dituen? Horrela egitean Peillenen xedea zen gure kulturako zati diren etnologia jakituriak gure hiztegiarekin gure berezitasunekin ezagutaraztea, horregatik Donostiako AEB argitaldariarentzat eta Ataungo Barandiaran fundazioarentzat berriemaileekin egin zuen liburu bat; atseginez jakin zuen Zuberoako herri sendakuntzaz egin zuen azterketa, Bilboko medikuntza talde batek ikertu zuela.

Ikerketa gehienak euskaraz idatzi arren badaki beste hizkuntzetan idazteak eta mintzatzeak merezi duela. Aitortu behar du frantsesez hiru liburu argitaratu dituela, bata lexikografiako tesia, ezin zelako garai hartan (1981) euskaraz egin, Euskaltzaindiak euskaraz eman dio igaz, Biologiaren hiztegiaren izenarekin, bigarren liburua euskara frankofonoei ezagutarazteko *Parlons l'Euskara*. Hirugarrena zubereraz dauden okzitanismoak aztertzen zituena Madrileko UNED'eko linguistikan saiakera sariarekin izan zuena, *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*, 1995. urtekoa izan zen.

Badaki zer muturra egiten duten manexek beren gaskonismoak eta itxuragabetu frantses hitzak aipatzen dituenean. Ez da oraindik benafarrera diren mailegu hitzez lanik



egin, bereaz kanpo, alegia zuberera baino garbiago delakoa omen baita. Aspaldian idatzi zuen, ingelesa adibidetzat emanaz, ezin baztertuak direla osoki maileguak, hizkuntzek emazteek bezala ez dutela fruiturik ematen birjina egonaz, ez eta prostituz ere, baina ditugun hitzak gorde behar ditugula, eta ez beharrik gabe modazkoak hartu. Hiztegia baino txarrago da joskeran hartzen ditugun erdal kalkoak.


*Bosquejos Vasco Uruguayos*, erdaraz eman zuen, euskal kultura uruguaiarrei ezagutarazteko eta uruguaiar kultura euskaldunei. Gaztelaniaz, beste saiakera handiagoaren idazten jarduten du. Ingeleseztatik artikulu bat eta kantua bat idatzi zituen. Hots, saiatzen da egin dituen ikasketa gehienez baliatzera.

Biologiaren bere lehen lanbidea izan dena eta patologia soldadutzan ikusi duena gogoan, Elhuyarren artikulu zenbait idatzi zituen, batik bat, Darwini buruz, zahartzeaz, osasunaz, eta heriotzaz ere. Didaktika liburua ere badu *Bizidunak haurren eta helduen heziketan*. Tesia ere, Biologiaren hiztegiaren bide horretatik ibili zen, hor anatomiar, fisiologiaren eta patologiar buruzko euskal testu batzuk agertzen direlako eta oraindik gehiago Barandiaran fundazioak argitaratu ziozkaten bi etnologia saiakera liburuetan.

Ikerketa sailean 24 liburu argitaratu dizkiote eta gorago aipatu gaiez, baina, denbora berean, aldizkari ugarietan 192 ikerketa artikuluak eman zituen. Aldizkari horiek izan ziren Cuadernos de Etnología y etnografía de Navarra, Fontes Linguae Vasconum, Anuario de Eusko folklore, Bulletin du Musée Basque, Egan, Ekaia, Elhuyar, Euskera, Habe, Iker I-X, Jakin, Lapurdum.

Behin, 1960.an Juan San Martinek esan zion Arantzadiko Arratibel oinartiar gazte bati utz ziezaiola idatzi zuen, lehenbiziko Euskal Herriaren geografia: marrazki, estatistika eta mapekin. Ale bat baizik ez zuen eta San Martinekin ez zuen inon atzeman, beraz galdua da.

Bere euskaldun idazle eta patriota bide horretan beti bazterska ibili da, gure politikan eta gure kulturaren ikerketan hainbeste exotismok eta utopiek kutsa gintzakeelako. Beti gogoan




du nola arabar batek, horiekin guztiekin ezer ikusteko ez zuen gai baten aipatzearekin, hots, hamazazpigarren mendeko liburu baten eskaintza egiten ziolarik, bera soilik erakundearen kudeatzaile izanik, autoritate bakarra izan balitz bezala ezezkoa eman ziola, gaineratuz utopiazale hutsa zela. Ez zituen agian, aparatxik horrek, behin ere irakurri hain kritiko diren azterketa ala besteek hala uste badute denbora galdu zukeela euskaraz idazten? Atseginik hartu ez balu behar horretan ez zuen jarraikiko baizekien idaztea lan bide baldin bada ez dela ogibidea.



**T**xomin Peillenek, Andima Ibinagabeitiaren eskolatik, bereizten du abertzaletasuna eta nazionalismoa, baina bi hitzek ñabardura anitz dituzte. Peillenentzat abertzale izatea, patriota izatea da, Euskal Herri gizarte baketsua eta euskal kultura zaindu lezakeen herri bat eskatzea, amets urrunen mailan dauka. Frantsesek euskara duintasunean hiltzen laguntzen dutelarik eta espainolistek frankismoaren garaiko mamuekin ofizialtasunari bere muina kentzen dabiltzaino Txomin Peillenek euskaltzaletasuna lehentasunean edukiko du.

Orduko, abertzaletasunari Mirandek egin kritikak onartuz ez zuen hark nahi borroka armatua onartzen Gandhi baitzuen eredutzat eta beti indarkeria guztien aurka agertu delako. Aitortzen du Pariseko jaurlaritzaren giroan errepublikazale ideiak onartzen zituela, baita abertzale batzuen jarrera miresten: hala nola Hernandorena edo Agirre familia euskaldunena, baina ezagutu zituen anai arreba batzuk aitetama euskaldunak eta abertzale handiak zituztenak eta euskararik ez zekitenak. Bestalde maiz ikusi du beren karguetan zeudeno abertzale ez zirenak erretretan bide hori hartzen.

Jakina, PNV alderdiak ez zituen Iparraldekoak onartzen frantses agintariekin arazorik ez izateko, baina nola nahi Txomin Peilleni ez zitzaion gogoko JEL formula klerikala. Behin, horretaz idatzirik erantzun irri-egingarria, barregarria eduki zuen, alegia ez zela alderdi konfesionala giristino baloreen aldekoa baino. Abertzale bidea argitu zioten 1956. urtean Pariseko lehen *Congreso Mundial Vascon* entzundakoak eta berotuxe hegoaldetik etorri ziren lagunek: Bitor Kapanaga, Andoni Tototika, Karmele Rotaetxe, Elbira Zipitria eta besteek




Eusko Alkartasuneko lagunekin ibili da, zazpiak bat gogoan, alderdi laiko horrek Iparraldean sail bat ireki zutenean. Sarritan bezala kritikoa dela esan du, nahiz ez den entzuna. Hitz handien erabilera ez zaio gustatzen, batik bat independentzia eta subiranotasuna hitz larriak goستن direnean, adigai horien edukia aztertu gabe. Horrelako hitzak errealitatearen kontra zulatzen eta deshantzen dira; autodeterminazioaz kanpo ez du aterabiderik ikusten gutxiago, gainera, eta nola liteke Europaren erdian Kuba berri bat sor?

Inolako amets handirik gabe lealtasunez jarraitzen du ezpaita alderdi batetik bestera ibiltzen diren haize buruetarik: norat haize, harat aise.

---

# Données biographiques






# La vie d'une famille de la diaspora

**O**bligés à une émigration économique Madeleine Carricaburu et Jean Peillen tous deux souletins du val d'Andoze, l'une côté Larrau, l'autre côté Licq se rencontrèrent et s'épousèrent en 1929. Txomin fils cadet du couple naquit le 17 novembre 1932, à Paris, sur la butte Montmartre.

Jean Peillen n'avait pas onze ans lorsqu'il fut retiré de l'école et devint le berger familial, il alla en Turquie, encore en guerre en 1920, où l'armée française tentait, maladroitement, de sauver du massacre quelques milliers d'Arméniens; il circula au Liban, en Syrie, en Mésopotamie, puis il revint au Pays Basque dans l'espoir de reprendre le bien familial mais sa sœur aînée, entre temps, se maria; il resta alors un temps ouvrier agricole chez sa tante de Sauguis où on lui confia dans la pastorale Charlemagne, bien sûr... le rôle de roi turc.

Ce père partit pour Paris où comme beaucoup d'émigrés économiques basques il travailla dans le commerce; mais grâce à une scolarisation acquise en cours du soir il put entrer après deux ans d'école spécialisée dans la police municipale il monta de deux grades, fonction où il se trouva pendant la guerre. Il participa avec la résistance à la libération de Paris que son fils raconta et qui montre la faible proportion de Parisiens engagés dans ce combat.

Madeleine Carricaburu qui fut retirée de l'école en pleurs à l'âge de neuf ans était à dix-huit ans à Paris où elle fut lingère au Claridge, puis sporadiquement cuisinière car lors d'un séjour de



